



BARREN

TOKIKOM



Saguzarren eboluzioa gorotzetan

Antton Alberdi, biologoa

LAN DEIALDIA

ELGOIBARKO IZARRAK HAURRENTZAKO UDAKO AISIA ESKAINTZARAKO HEZITZAILEAK BEHAR DITU.

ESKAITZEN DA:

- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale tituluia izatea. (bigarren hau lehenetsiko da).
- Ahozko euskara maila altua izatea

BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea
- Hezkuntza Premia Behar Bereziatako ikasketak edota esperientzia izatea.
- Herrigintzan jardun izana.



Curriculumak AURKEZTEKO epea: martxoak 17, ostirala.
Ubitarte 4, behea - 20870 ELGOIBAR - atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus (Mikel 943 741 626)

PRAKTIKAK EGITEKO ESKAINTZA

ELGOIBARKO IZARRAK HAURRENTZAKO UDAKO AISIA ESKAINTZARAKO PRAKTIKAK GAUZATZEKO HEZITZAILEAK BEHAR DITU.

ESKAITZEN DA:

- Begirale tituluaren atal teorikoa eginda izatea edota udaleku irekietan lan boluntarioa egiteko gogoia izatea.
- 18 urtez gorakoa izatea
- Ahozko euskara maila altua izatea.

BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Jarrera dinamikoa eta sortzailea izatea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna izatea
- Hezkuntza Premia Behar Bereziatako ikasketak edota esperientzia izatea.
- Herrigintzan jardun izana.



Curriculumak AURKEZTEKO epea: martxoak 17, ostirala.
Ubitarte 4, behea - 20870 ELGOIBAR - atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus (Mikel 943 741 626)



SUKALDARITZA TAILERRA FAMILIAN

10:00 - 13:00

Martxoak 18,
zapatua
Elgoibarko
Ludotekan



HH2-LH3
bitarteko
ume
eta
familientzat

Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:





NORA KORTABERRIA

“Momentu bereziak ez al dira berezi inguruan izan ditugun pertsonengatik?”

Kaixo, Nerea! Zer moduz? Hegazkinetik idazten dizut gaur, San Frantziskora bidean goaz-eta. Groenlandia gainetik pasatzen ari gara orain, guztia zuri-zuri, pasada bat da! Baina tira, film bat ikusi dut, eta pentsakor nago orain.

5 to 7 izeneko filma zen, bikote bati buruzko film “ñoño” deitu ahal diogun horietako zen. Baina kontua da bikoteko emakumeak eta gizonak, biek, maitaleak zituztela eta familian onartzen zituztela (umeez eta guzti)! Familiakoentzat guztiz normala zen egoera hori, baina maitaleentzat ez zen horren ulergarria. Errealitatera ekarrita ezinezkoa dirudi, ezta? Nik zera pentsatu dut: “Tira, filmeetako kontuak...” Dena dela, gizonaren maitaleak emakumearenari azalpena eman dio eszena batean: “Zer da bizitza? Momentuz beteriko bilduma bat. Horregatik, zergatik ezin ditugu horrelako egoerak ere bizi eta bilduma horretara gehitu? Zer du txarra horrek?” Horrekin ez dut esan nahi horrelako amodio kon-

tuen aldekoa naizenik edo ez naizenik, baizik eta bizitzaren interpretazio hori gustatu zaidala. Askotan entzundako kontzeptua da bizitza unez beteriko bilduma dela, baina orain ulertu dut ondo, bere osotasunean. Gainera momentuak ez al dira pertsonak? Hau da, momentu bereziak ez al dira berezi inguruan izan ditugun pertsonengatik?

Bestalde, emakumearen maitalea idazlea zen eta esaldi honekin eman dio amaiera istorioari: “*Every story, whatever it might be, is written for one reader*” (Istorio guztiak, direnak direla ere, hartzaile batentzat idatziak dira). Eta egia da. Testu eta istorio guztiak dute hartzaile jakin bat, nahiz eta ohartzen ez garen. Horrek ez du esan nahi hartzailea gu geu izan ezin gaitzekunik, baina amaierako hartzailea ziur nago beste norbait izango dela, gu ohartu ez arren buruan dugun pertsona hori. Ni konturatu naiz nor den gaurko testu honen “ezkutuko hartzailea”. Eta zurea, Nerea, nor ote da?



NEREA GURRUTXAGA



“Maiz, momentuak baino garrantzitsuagoa da zurekin zein dagoen une hori bizitzeko”

Kaixo, Nora. Zer moduz San Frantziskon? Horrelako bidaia luzeek pentsatzeko eta hausnartzeko balio dute askotan, bai! Izan ere, zein zaila den hegaldi horietan lo egitea! Baina tira, beste baterako utziko dut gai hori!

Harremanak aipatu dituzu, Nora; harreman ereduak, eta horiek gure bizitzan duten eragina, uzten duten marka, edo orbana, kasu batzuetan. Eredu erromantikoaren bueltan bizi izan gara orain arte, eta harreman heterosexual, monogamo eta bizitza gutxirako izango direnak ezagutu ditugu gehienbat. Orain badakigu ez dela zertan horrela izan, eta fikzioa izan arren, zuk deskribatutako familia ereduak existitzen direla. Nik garrantzi berezia ematen diot horrelako ereduak ezagutzeari, baina ez guztiok harreman mota hori jarraitu behar genukeelako, baizik eta garrantzitsua iruditzen zaidalako bikote harreman bat hasterakoan, hau nolakoa izango den planteatzea eta hausnartzea, zuzenean bertiko eredu monogamo tradizionalen sartu gabe. Erabakitzen dena erabakitzen dela, beti izango da erabaki kontziente bat, eta ez inertzia hutsez hartutakoa. Gainera, zuk esan bezala, bizitza momentuz osatua dago, eta momentu bakoitzean izan nahi

dugun harreman mota ezberdina izango da. Arrazoia duzu, Nora, momentuak pertsonak osatzen dituzte, eta ezagutzen dugun ororekin bizitakoa aberasgarria da, ikasi egiten dugu besteengandik, eta bakoitzak ematen digunak eragina izango du gudan.

Horregatik, maiz, momentuak baino garrantzitsuagoa da zurekin zein dagoen momentu hori bizitzeko. Elkarbanatzea gustatzen zaigu, oroitzapenak ertz eta angelu ezberdinez betetzen direlako kolektiboak direnean. Lagun batek esan zidan bakarrik joan zela bidaia batera, bere autonomia lantzeko gogoia zuelako, eta esperientzia aberasgarria izan arren, nahiago duela momentu horiek konpainian bizitzea, norbaitekin elkarbanatzea. Zenbat aldiz gertatu zaizu, nonbaitera joan, eta ezagunen bat joan ez delako penatan egotea, ikusizunaz gozatu beharrean? “Maiteri ikaragarri gustatuko litzaioke antzerki hau! Pena ez dela etorri!” Niri askotan! Esan duzun bezala, guztiok dugu irakurle bat, norbaitentzat idazten ditugu istorioak, eta agian, hurrengo batean, “norbait” hori irakurle izatetik idazle izatera pasatuko da, eta elkarrekin idatziko dugu hurengoa.



EDURNE EIZAGIRRE

Psikologoa

Agur esatea

erantzuna bilatzeko beharra daukagu, baina batzuetan, ez dago erantzunik, gertatua onartzea besterik ez da gelditzen, eta ez da prozesu erraza izaten. Emozioa sentitu, identifikatu, onartu eta elaboratzeko prozesua pertsonala da, norberarena. Eta horretarako denbora eta espazio seguru bat behar ditugu; hitz egokiak esango dizkigun norbait baino gehiago gure prozesua onartu eta errespetatuko duen norbaiten gertutasuna behar dugu.

“Ikas dezagun prozesu emozionalak zaintzen, fisikoak zaintzen ikasten dugun moduan”

Gaur “arraro” sumatzen bazara, ez epaitu, ez saiatu logika bilatzen (hura hil zela bi urte badira, eta orain triste? Duela

sei hilabete aldatu zenuela lanez eta orain igarri duzula antsietatea?), barne prozesuak ez doaz gertaeren egutegiarekin batera, eta ez dira linealak izaten, gorabeheratsuak baizik. Gertatu berri denean, askotan egoerari eutsi nahi izaten diogu eta horretarako martxan jartzen gara; batzuetan beharrezkoa da hori, baina momenturen batean azalaraziko da barruko emozioa.

Ikas dezagun prozesu emozionalak zaintzen, fisikoak zaintzen ikasten dugun moduan; gripea dugunean atseden hartu behar dugun bezala prozesuari aurre egiteko, tristura edo antsietatea sumatzen dugunean benetako lagunen konpainian kalitatezko denbora pasatzeko ordua da, edo sosegua ematen digun itsas bazterretik pasio bat ematekoa. Hemen ez dute balio formula estandarrek; batzuek musika behar dute, barne ahotsak ateratzeko; besteek, mendia; batzuek elkarrizketa behar dute, eta besteek, orri zuria. Eman baimena zeure buruari formula propioa bilatzeko.

Ez da erraza agur esateko denbora hartzea, galera neurtu, geure prozesuaren kontzientzia hartu eta sortzen zaigun keinu sinbolikoa aurrera eramateko. Denerako protokoloak sortzen ditugu, estandarrek, “normalak” eta normatiboak.

Aldaketei aurre egiten diegu beste edozein egitekori bezala: antolatu, programatu, eta bete. Baina kontuan hartzen al dugu prozesu emozionala? Kontzientzia al gara gure barrenak ez duela gure buruaren erritmo berdina?

Pertsonok, zentzu batean, zergatiei



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► 'ARAUDIA BETZERA GOAZ', DIOTE UDALTZAINEK.

Gaurtik, 2017ko martxoaren 6tik, Elgoibarko txakurrak sokatik helduta eraman behar ditugu.

Eta diot nik: araudia hortara mugatzen al da? Non egoten dira udaltzainak puntako orduetan eta gure haurrak eskolara sartzan edo handik irteten diren orduetan? A bai, araudia betearazten egoten dira, baina soilik Ikastola parean, Herri Eskola parera ez direlako iristen (betetzen ez den lehenengo araua).

Eta hitz egin dezagun biribilguneez. Maalakoan beti daude autoak aparkatuta. Noiztik aparka daiteke biribilgune batean? Taxi-jabeek bai, baina gainerrako guztiek? (horra hor urratzen den beste arau bat)

Eta aipa dezagun PSOEK Urazandin daukan egoitza parean gertatzen dena. Non daude udaltzainak poteo orduetan? (eta poteoa egun osokoa da han). Pare horretan, STOP gainean eta 'utzi pasatzen' markaren gainean aparkatzen dituzte autoak egunero, zirkulazioa oz-

topatuz. (urratzen den beste arau bat)

Baina, jakina, zuk, txakurraren jabe zaren horrek, txakurra lotuta eraman behar duzu beti, baita mendian ere, eta hori dena legez duzula (txip-a, bakunak...)

Araudian jasota dago, era berean, gehienez denbora jakin bat egon daitekeela auto bat leku berean aparkatuta. Bada, Santa Klaran auto batek bi urtetik gora daramatza leku berean, zepoa jarrita. Zer, horrek ez dio ardura?

Ondotxo dakigu arauak betetzeko daudela, baina denak, eta ez pertsona jakin batzuei interesatzen zaizkienak bakarrik.

Suposatzen da Elgoibarko Udalak baduela garabi bat, denok ikusten dugulako pasatzen, baina ez du zerbitzurik ematen, horrek Udaltzaingoa eta herritarrek aurrez aurre jartzea ekarriko lukelako.

Horregatik, gu, animalia-jabeak konparaziozko bidegabekeria sentitzen gara beste herritar batzuekiko, udaltzainek denbora galtzen dutelako gure txakur-

kurrekin arau barregarriak betearazten eta beste batzuei Elgoibarko zirkulazioa trabatzea baimentzen dietelako.

Lucia Molina

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEk edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenaekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datarren eskutitz argitaratuko.



199€

32"

Led 32" Philips
32PHS4001/12

USB
ULTRA FINA
3XHDMI

Edesa EPI 3320R
indukziozko gaineko sukaildea

28 zmkko sua



245€



19€

Rowenta
ilea moztekoa

AC motorra
4 mozkerak desberdin ditu
3/6/9/13 mm

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Borroka feminista, plazara

Emakumeek, emakume izateagatik bakarrik, sufrizten duten bazterketa eta indarkeria salatu zuten eguaztenean, Martxoaren 8an, Elgoibarren eta Mendaron egin ziren ekintza eta mobilizazioetan. Eta aldarrikapen hori bera eraman zuten ehunka emakumek –tarteetan Elgoibarko eta Mendaroko 53 emakume– igandean Donostiara, lilatoira. Emakumea bistarazi, genero ezberdintasuna ikasia dela agerian utzi eta berdintasunaren aldeko borrokan indarrak batu nahi izan dituzte bateko eta beste antolatzaileek. Mendaron, adibidez, parte-hartzea eta performancea uztartu zituen ekintza egin zuten, Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldeak antolatuta. Gizonen eta emakumeen arteko eskubide berdintasuna aldarrikatzeko eta emakumeen artean elkartasuna agertzeko, kolore ezberdineko artileak trukatu zituzten plazan, sare handi bat osatuz.

Elgoibarren, berriz, elkarretaratzea eta Martxa Morea egin zituzten, Emakumeen Kontseiluak antolatuta. 2014ko azaroaren 25ean antolatu zuten lehenengoz Martxa Morea Elgoibarren, indarkeria matxista salatzen. Ondoren, eta Elgoibarko emakume ezkertiar eta euskaldun talde batek deituta, talde argazkia atera zuten Kultur Etxe parean. Zapalkuntzak hirukoitzak ere izan daitezkeela ohartarazi zuten, Angela Davisen teoriarekin bat eginez, eta salatu zuten aldi berean azpiratuak direla euskaldun gisa, emakume gisa eta ezkertiar gisa.



Korrikedadakako emakumeek, Lilatoian.



Martxa morea egin zuten eguaztenean Elgoibarren.



Emakume ezkertiar eta euskaldunen erkarretaratzea Elgoibarko Kultur Etxe aurrean.



Kolore ezberdinetako artile sarea egin zuten Mendaron.



“Aztertzea bezain garrantzitsua da dibulgazioa zientzian”

▶ **ANTTON ALBERDI** BIOLOGOA

Biologia ikasketak egin zituen Antton Alberdik (Elgoibar, 1987) EHU, eta horren ostean, Biodibertsitateari eta Ekosistemen kudeaketari buruzko masterra egin zuen. 2014an, berriz, ‘Plecotus macrobullaris belarrihandi alpetarraren ekologia eta eboluzioa’ izeneko tesia defendatu zuen, eta ia, tesi horri buruzko dibulgazio testu bati esker CAF Elhuyar saria jaso zuen. Egun, Kopenhageko Geogenetikako Institutuan dihardu zientzia azterketa lanetan, doktoretza osteko beka batekin. Hamar bat eguneko oporraldia aprobetxatu du Euskal Herrira bisitan etortzeko, eta bide batez, Morkaikoren zientzia eta mendia uztartzeko hitzaldi zikloan parte hartu du.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ Biologia ikasketak egin zenituen EHU. Nola iritsi zinen saguzarren mundura?

Biologia ikasketak bukatu aurretik hasi nintzen horretan. EHU talde bat dago saguzarren ikerketan aritzen dena, eta haiekin hasi nintzen. Gero, tesia ere horri buruz egin nuen, eta 2016. urte hasieratik Danimarkan nago saguzarrekin zerikusia duen ikerketa batean, baina aurretik egin dakoaren antzik ez duen lan bat egiten.

Egia da saguzarren gaia ez zela nik neuk aukeratutako kontua izan. Aukera suertatu zitzaidan, eta behin saguzarrekin lanean hasi nintzenean, oso gustura sentitu nintzen. Gauza berri pila bat ikasteko aukera eman dit.

♦ Tesia Saguzar Belarrihandi Alpetarrari buruzkoa egin duzu. Zein izan da tesiaren lan ildoak?

2003an espezie berria deskubritu zen Europan, Saguzar Alpetar Bela-

rrihandia. Ordura arte ez genekien ezer espezie horri buruz. Nire zeregina izan zen horri buruzko ahalik eta informazio gehiena lortzea: animalia horren bizimodu, jatorria eta ingurunearekin zeukan erlazioa aztertu nahi genituen, bereziki jakiteko noiztik zegoen gure artean eta azken milaka urteotan izan diren klima aldaketan eraginez nolako eboluzioa izan duen. Espezie alpetarra da, eta saguzarren artean goi mendietan bizi den

bakarra da. Lau urte pasatu nituen lan horretan.

♦ **Orain Danimarkan zaude, Kopenhageko Geogenetika Institutuan. Zertan diharduzu?**

Saguzarren aintzinako gorotzak aztertzen nabil orain. Europan 35 saguzar espezie inguru daude, eta erdia gutxi gorabehera kobazuloetan gordetzen dira. Hori dela-eta, pentsatzen nuen egongo zirela saguzarren kaken depositoak, izan ere, talde handitan biltzen dira kobazuloetan eta urteak pasa ditzakete egunero-egunero kaka leku berean egiten. Pentsatzen nuen pilaketa horiek informazio geologiko eta biologiko handia gordetako zutela, Europan azken milaka urteetan gertatu diren aldaketak azaltzeko baliagarria izango zena. Klima aldaketek habitatean izan duten eragina aztertzen dugu batetik, eta, bestetik, saguzarrek aldatuta horiei nola erantzun dieten. Proiektuaren helburua da ikustea azken 10.000 urteetan nola aldatu diren klima eta habitata Europan, eta aldaketa horiek nola eragin duten saguzarren: saguzarren espezieak non zeuden garai bakoitzean, nola mugitu diren, beraien dieta nola aldatu den, eta beraien hesteetako mikroorganismoak ere nola aldatu diren.

♦ **Nola aztertzen dituzue kakak?**

Gorotz pilaketak ez dira toki errazetan egoten, eta kobazulo barruetan aldarmioak ere jarri behar izan ditugu. Orain arte aurkitu dugun gorotz pilaketa handiena hiru metro pasakoa izan da. Batzuetan oso solidifikatuta egoten dira gorotzak eta posible izaten da gainera igotzea, baina normalean hondoratu egiten zara eta ez da posible. Hortaz, teknika desberdinak erabiltzen ditugu, baina beti laginketa bertikalak egiten ditugu. Orain arteko sakonena hiru metro pasakoa izan da, eta sakonera horretan aurkitu ditugu 10.000 urteko segidak geruzetan estratifikatuta. Horri esker jakin dezakegu zein saguzar espezie egon diren bertan, zer jan duten eta zein mikroorganismo zituzten hesteetan. DNA aztertzen dugu, eta horri esker ateratzen dugu informazioa. Horrez gain, isotopoen bitartez



“1.300 saguzar espezie daude mundu guztian, eta beraien artean oso desberdinak dira”

jakin dezakegu 10.000 urteotan leku bakoitzeko tenperatura eta flora nola aldatu diren. Azken batean, komunitate oso bat Europa Hegoaldean nola aldatu den jakin dezakegu, ikerketa Portugalen, Espainian, Serbian eta Bulgarian lagindu dudalako. Leku bakoitzaren arabera baldintza desberdinak aurkitu ditugu eta zailtasun handienetarikoa horixe izan da, lagin mota desberdinetara egokitzea. Laginak baldintza hotzetan mantendu behar izaten dira, bestela ez dute balio, eta kontu handiz ibili behar izaten dugu. Gainera saguzarrei kalterik egin gabe saiatzeko gara azterketa horiek egiten, beraiek irteten diren orduan aritzen gara gu lanean, gabez gehienetan, eta kontu handiz. Europan bi espezie dira dominanteak, eta bereziki horiek aztertu ditugu, baina zenbait lekutan beste espezie batzuen laginak ere aurkitu ditugu.

♦ **Saguzarrei buruzko zenbait informazio oso zabaldua daude, esate baterako, ez dutela ikusten. Horrelako zenbat kontu dira okerrak?**

Saguzarren kasuan hiru gaizki-ulertu nagusi daude, oro har. Bata ikusmenarena da; jendeak uste du itsuak direla, baina saguzarrek gu bezain ondo edo

hobeto ikusten dute. Sonar sistema dute: ahotik edo sudurretik botatzen dituzte soinua eta haien oihartzuna jasoz orientatu daitezke, baina ez dute ikusmena galdu. Iluntasunean orientatzeko ahalmena daukate, baina argitasuna ere erabiltzen dute, eta zenbait espezie egun ez ibiltzen dira. Bigarrena da saguzarra ez dela espezie bakarra. 1.300 saguzar espezie daude mundu guztian, eta beraien artean oso desberdinak dira gainera. Eta azkena da jendeak uste duela saguzarrek animalia arriskutsuak eta zikinak direla; gauza desatseginekin lotzen dira normalean, eta guztiz kontrakoak dira. Saguzarrek animalia oso garbiak dira. Eta laugarren bat ere aipatuko nuke: Europan ez dago odola xurgatzen duen saguzarrik. 1.300 espezieetatik hiruk bakarrik xurgatzen dute odola eta Ameriketara bizi dira. Dracularen kontuarekin espezie guztiek hiru horien fama hartu dute.

♦ **Nolatan hartu zenuen Danimarkarako bidea? Euskal Herrian baino aukera gehiago dago atzerrian zientzia azterketarako?**

Tesia egin nuenean hiru hilabetez egon nintzen Kopenhageko Institutuan lanean, eta asko gustatu zitzaizkidan laborategia, lantaldea eta lan egiteko modua. Garbi neukan tesia amaitu ondoren hara joan nahi nuela, eta tesia amaitu nuenean doktorego osteko beka eskatu nuen Danimarkan lan egiteko. Bi urterako beka oso ona eman zidaten. Hileroko soldata eta proiektua garatzeko dirua eman zidaten. Beka ezinhobe! Zorte handia izan dut. Soldataz gain, lanerako 100.000 euro

eman zizkidaten. Euskal Herrian eta Espainian ez dago horrelako bekarik; alor horretan alde handia dago. Eta teknikoki ere Euskal Herrian ez litzateke posible izango. DNA zaharrak aztertzen ditugu, eta baldintza oso zehatzetan lan egin behar da. Ni nagoen laborategiak horretarako aukera ematen du, antzinako gizaki eta animalien DNAk aztertzeko prestatuta dagoelako. Nazioarteko lantaldea da gurea, 35 lagun gaude taldean, mundu guztiko 100 lagun baino gehiago gaude departamentuan eta proiektuak ere mundu mailakoak dira.

♦ **Iaz CAF Elhuyar saria eman zizuten tesi lanaren dibulgazio testu bategatik. Zein garrantzia dauka zuretzat zientzia dibulgazioak?**

Azterzea bera bezain garrantzitsua da dibulgazioa. Garbi daukat zientzia egin gabe ez dagoela dibulgaziorik, baina garbi daukat baita ere zientzia dibulgatu gabe, zientzia egiteak ez daukala zentzu handirik. Egiten dugun lan guztia zabaltzea garrantzitsua da. Beketan eta lortzen ditugun lanetan gero eta garrantzia gehiago ematen zaio dibulgazioari, baina oraindik ez zaio ematen aztertzeari beste. Nik gustura egiten dut, egin behar den gauza bat da, baina egin nahiko nukeena baino gutxiago egiten dut. Azken batean dibulgazioak ez digu jaten ematen, laborategiko lanak eta zientzia artzertzeak ematen du dirua.

♦ **Aurrera begira, zein dira zure asmoak?**


Gustatuko litzaidake zientzia mun-

duan jarraitzea eta zientziatik bizi ahal izatea. Posible bada, baina malgutasun handia eskatzen du. Momentu honetan saguzarrekin baino gehiago ari naiz hesteetako mikroorganismoek animalietan duten eragina aztertzen. Beste proiektu batzuetan ere banabil, baina hau da nire proiektu nagusia eta etorkizunean ere lan horrekin jarraitu nahi nuke. Azken batean, hesteetako florak animaliei inguruna egokitzen nola ahalbidetzen dien aztertzen dut. Ikusi nahi dugu denboran eta espazioan nola aldatu diren hesteetako mikroorganismoak ingurunea aldatzearekin batera, ulertzeko aldaketa horiek zein onura eman dieten saguzarrei leku bakoitzeko eta garai bakoitzeko baldintzetara egokitzeak.

♦ **Publikoki salatu zenuten zure bikotekideak eta biok emakumezkoek dituzten zailtasunak doktorego osteko bekak eskuratzeko, adin horretan emakume askok ama izatea erabakitzen dutelako. Nola amaitu zen kontu hura?**

Kontua zen Eusko Jaurlaritzako beka eskatzeko elkarrizketa pertsonala egin behar zela, eta elkarrizketa hori aurrez aurrekoa izan behar zela. Elkarrizketa izan behar zen egunaren bueltan gure semea jaioko zenez, nire bikotekideak agian ezin izango zuen elkarrizketara joan, eta eguna aldatzeko eskatu genuen. Ezetz erantzun ziguten, ezin zigtela elkarrizketa egunez aldatu, oinarrietan horrela jasota zegoelako eta bestela norbaitek deialdi guztia inpugna-

tzeko aukera izan zezakeelako. Umea jaio eta bi egunera joan ginen nire neskalaguna, umea eta hirurok elkarrizketara. Azkenean biok lortu genituen bi beka, bai Eusko Jaurlaritzakoa eta baita Danimarkakoa ere, eta bigarrengoak hobeak zirenez, Eusko Jaurlaritzako bekei uko egin genien. Danimarkan eskaintzen ziguten soldata hiru aldiz handiagoa zen, eta soldataz gain, bioi eman ziguten proiektua gure kabuz garatzeko dirua. Oso pozik gaude. Guk zortea izan dugu, biok gremio berean lan egiten dugulako eta biok izan dugulako Danimarkara joateko aukera, baina bestela, normalean emakumeak uko egiten dio zientziari umea zaintzeko. Zientziaren munduan gizonezkoak dira nagusi, doktoretza osteko bekak eskatzeko adinean emakume askok haurdun geratzea erabakitzen dutelako. Gure lantaldean bertan, masterreko eta doktordutzako ikasleen artean %75 emakumezkoak dira, eta doktorego ostean portzentaje hori irauli egiten da. Zientzian lehia handia dago, eta aurrera egiteko modu bakarra ingurukoekin lehiatzea da, eta horrek dedikazio handia eskatzen du. Gauzak hasi dira aldatzen eta hobetzen, baina poliki. Eusko Jaurlaritzarekin gertatu zitzaigunaren ondoren, oinarriak aldatu dituzte, eta azken deialdian jasota dago pisuzko arrazoi bategatik elkarrizketara joateko aukerarik ez duenak telefonoz edo Skype bitartez egiteko aukera izango duela. Poz handia hartu genuen.



Elgoibarren ere aurkeztu dute Debabarreneko orfeoia



Bigarren kontzertua zuen barixakukoa Debabarreneko Orfeoia. Eibarren eskaini zuten estreinakoa azaroan, eta orain, Herriko Antzokian zuten zita, Elgoibarko publikoarekin. Orfeoiko kideak urduri zeuden, baina Jose Miguel Laskurain orfeoiko zuzendariak esandakoaren arabera, estreinaldian baino lasiago. Debabarreneko orkestra sinfonikoa eta Inazio Bereziartua eta Bergarako musika eskoletako ikasleak ere oholtzan izango ziren, orfeoia laguntzen. Eta dena primeran irten zen, musikari dagokionean: "Orfeoia maila bikaina eman zuten, eta ikusleengandik jaso genituen kritikak oso onak izan ziren". Hala ere, arantza txiki bat geratu zaio Laskurain maisuari: "Orain ere, ez dugu publiko nahikoa erakarri". 120 bat lagun batu ziren Herriko Antzokian orfeoia kontzertuaz gozatzeko, eta gehiago espero zuten. Laskurain zuzendariak uste du kultur ekintzen tendentzia orokorra dela, hau da, jendea ez dela kultur ekialdietara joaten: "Udal Musika Bandak Herriko Antzokia betetzen du, hori egia da. Elgoibartarrak fidelak dira Musika Bandarekin, Txomin Mujikak oso kontzertu bereziak prestatzen dituelako, baina gainerako kultur ikuskizunetara jende gutxi joaten da". Ikusle faltak "desmotibazioa" sortzen du, baina orfeoia lanean jarraituko du, aurrerantzean antzokiak betetzeko ilusioarekin.

Datozen hilabeteetan hainbat kontzertu eskainiko dituzte: Maiatzean Eibarren eskainiko du kontzertua orkestrak eta Iñigo Cearsolo elgoibartarrak zuzenduko du saioa: "Orkestra zuzendaritza ikasketak egiten dihardu elgoibartarrak, eta

praktikak egiteko modu bat da". Orfeoia, bestalde, ekainean eskainiko du kontzertua, baina ikuslego zabalagoarengana iristeko helburuarekin, obra sinfonikoez gain beste musika mota batzuetako abestiak ere abestuko dituzte. Eta azaroan, Santa Zezilia egunaren harira, bi egiturek elkarrekin eskainiko dute kontzertua.

Orkestra eta orfeoia paraleloan

Orain dela urtebete sortu zuten Laskurainek Debabarreneko orkestra sinfonikoa, eta paraleloan hasi zen orfeoia sortzeko lanetan ere. Bi egitura independente, baina osagarri dira. Biak jaio dira, eta estreinatu dituzte jendaurrean. Hemendik aurrera bi taldeak sendotzea da helburua. Orkestran 35 musikari daude une honetan. Soka instrumentuen beharra dute, eta epe motzean taldea osatzeko lanetan dabilta. Orfeoia dagokionez, bestalde, 30 bat lagunek osatzen dute taldea, baina atek irekita daude parte hartu nahi duenarentzat. Kasu horretan abesten jakitea nahikoa da. Laskurainek berak esan du egungo musikari gehienek ez daukatela musika ikasketarik eta askok ez dakitela partiturarik irakurtzen, baina "primeran" moldatzen direla: "Horixe da orfeoia meritu handienetarikoa. Musikaririk irakurtzen jakin gabe abesten dakien jende talde bat bildu eta soinu ona ateratzea". Orfeoiko atek, beraz, zabalik daude nahi duenarentzat. Hamabostean behin egiten dituzte entseguak, asteburuetan.

'Nomofobikak' antzerkia taularatuko dute gaur, Herriko Antzokian



Olatz Beobide, Amaia Lizarralde eta Belen Cruz dira *nomofobikak* eta *Sarean Kateatuak* daude. Nomofobia aitzakiatzat hartuta, hiru emakumek ikusleekin batera terapia bati egingo diote aurre. Hasteko elkarrekin test bat egingo dute menpekotasuna zenbatekoa den neurtzeko. 2016ko otsailean sortu zuten antzerkia Poltsiko Antzerkirako eta saria ere jaso zuten. Elgoibarko Herriko Antzokian taularatuko dute obra gaur, 20:30etik aurrera.

'Iluntze solidarioa' antolatu du 2-dean B-rotuz taldeak martxoaren 30erako

Errefuxiatuen arazoek bere horretan jarraitzen dutela salatu du Elgoibarko 2-dean B-rotuz taldeak. Hori dela-eta, kultura eta elkartasuna uztartuko dituen *Iluntze Solidarioa* ekimena antolatu dute martxoaren 30erako. Elgoibarko Herriko Antzokian izango da emanaldia. Lehenik, *Wait, just wait* izeneko dokumentala eskainiko dute. Javi Julio (Donostia, 1978) argazkilariek errefuxiatuen egoera salatzeko egindako dokumentala da.

Dokumentalaren emanaldiaren ostean, kontzertua emango du Izaro (Izaro Andes Zelaieta, 1993, Mallabia) abeslariak. Izarok duela bi urte jarri zuen berak konposatutako lehen abestia sarean, *Paradise* izenekoak, eta gero, *Om* diskoa argitaratu zuen. Sarrerak 10 euroan salduko dituzte aurrez, eta 12 euroan, lehiatilan.

Giro onean joan dira Aingeru Guardako jaiak

Aingeru Guarda eguna izan zen martxoaren 1a, eta horren harira, meza ospatu zuten Mendaroko Aingeru Guardakoaren ermitan joan zen domekan. Mezarekin hasi ziren ospakizunak eta trikitilariak eta bertsolariak girotu zuten mezaostea. Gero, herri kirol saioa eskaini zuten.



Sustrai akordeoi taldearen kontzertua, bihar

Martxoaren 8aren harira, Sustrai akordeoi taldearen kontzertua antolatu du Haizea emakume taldeak biharko. Kultur Etxeko sotoan izango da emanaldia 12:30etik aurrera, eta gero, bazkaria egingo dute Karakate jatetxean.

Sukaldaritza tailerra familian, hilaren 18an

Familiaren hizkuntza transmisioa lantzeko helburuarekin Sukaldaritza Tailerra Familian antolatu du Atxutxiamaikaren Elgoibarko Izarraren Kiribilduz egitasmoak Udalarekin lankidetzan, HH4-LH3 adin tarteko umeentzako eta euren gurasoentzako. Martxoaren 18an egingo dute, 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko azken eguna martxoaren 15a izango da. 943 741 626 telefonoan eskuratu dezakezu informazio gehiago.

Ate irekiak hilaren 25ean San Pedro elkarteak

Idortorbeko San Pedro elkarteak bazkide berriak behar ditu, eta horren harira, atea irekitzeko eguna antolatu dute martxoaren 25erako, interesatuek elkarte gertutik ezagutu dezaten. Bazkide izateko baldintza bakarra auzoarekin harremana izatea da. Interesatuek sanpedroelkartea@hotmail.com helbidera idatzi dezakete.



“Euskara aplikazio bat da, eta ez sistema eragilea”

► MAIALEN LUJANBIO BERTSOLARIA

‘Euskaratik eta euskaraz, herri hau sortzen’ izenburuko hitzaldia eskaini zuten joan zen eguaztenean Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio bertsolariak, elkarrizketa formatoan. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak antolatu zuen saioa, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzarekin, eta Kultur Etxeko hitzaldi gela bete egin zen. Bertsolaritzatik abiatuta, euskararen inguruko kezkez galdetu zion Alberdik Lujanbiori, eta bertsotan erakutsi ohi duen zorrotzasun eta dotoreziarekin erantzun zien hark galderei. Elkarrizketa haren laburpena ekarri dugu hona, baina nahi izanez gero, www.barren.eus-en duzue bertsio luzeagoa.

- AINARA ARGOITIA -

◆ Nola eragin du eta eragin izan du bertsolaritzak zure euskalduntasunaren kontzientzian?

Batetik, bertsolaritzak Euskal Herria ezagutzeko aukera eman dit. Nik, nerez, banuen sentiberatasun bat, ideologiara oraindik iritsi ez zen sentimendu bat, eta bertsolaritzak eman dit hortan sakontzeko aukera. Eta eman dit, baita

ere, euskaldun izateko eta euskara bizitzeko modu desberdinak ezagutzeko aukera. Azpimarratu nahiko nuke hori, euskarari buruz hitz egiten dugunean, oso zaila izaten delako erretratu orokor bat egitea, egoera soziolinguistikoari dagokionean Euskal Herrian lurralde, zonalde, auzo, eta hiri desberdin asko dauzkagulako.

Bestetik, bertsolaritza euskaraz dela gauza jakina da, eta nola ez duen berak egiten duena beste hizkuntza hegemoniko batean egiten duen seniderik, aukera izan du bere burua birsortzeko, besteekin konparatu beharrik gabe; homologazio bila ibili beharrik gabe. Hori da aztertu behar duguna: ea bertsolaritzaren ereduak balio duen bestelako jardunetarako.

♦ **Euskara ardatzean jartzearen garrantzia azpimarratu izan duzu maiz. Zer da euskara ardatzean jartzea? Zer esan nahi duzu 'euskaratik eta euskaraz' diotzunean?**

Nik hori ilustratzeko marrazketarako konpasaren irudia erabiltzen dut beti. Konpasak orratz bat izaten du, eta orratz hori finkatutakoan, zirkuluak marrazten dira beste besoarekin. Eta jakina, orratz hori zenbat eta finkoago sartuta egon, orduan eta lasaiago, errazago eta zabalago ireki ahal izango dugu zirkulua. Bada, hizkuntzarekin berdin. Guk orratza euskararen sendo finkatuta baldin badaukagu, orduan eta beldur gutxiago izango dugu beste hizkuntzetara zabalatzeko, ez dugulako gure oinarria galtzeko arriskurik izango. Hori bai, ardatza sendo finkatzeak ez du esan nahi euskararen gotortu behar garenik; kontrakoa. Egin ditudan bidaia, kolaborazio artistiko eta abarrek beti euskaratik egin ditut, eta mundura irten banaiz, euskaraz kantatzen dudalako izan da. Horrekin esan nahi dudana da eztabaidagarria dela mundura irteteko ingelesez, gaztelerez edo frantsesez egin behar dela esatea.

Euskaratik esaten dudanean, euskal hizkuntzatik eta gure mundu erreferentzialetik egitea esan nahi dut. Hau da, egitea geure ikuskeratik, besteen ispiluetan gure buruaren bila ibili beharrik gabe.

♦ **Zer esparrutan sumatzen duzu bereziki faltan euskara ardatzean jartzea? Politikan, adibidez?**

Bai. Iruditzen zait, EAEn batez ere, iritsita gaudela euskararen nibel kosmetiko minimo bat mantentzera. Korrekzioa mantentzen da, eta leku batzuetan hori baino gehiago ere bai, baina euskara ez da funtzionamenduaren muinean sartzen. Alderdi politikoei euskaraz funtzionatzen al dute? Gure komunikabideek euskaraz eta euskaratik funtzionatzen al dute? Gizartean erreferentzialak diren pertsonen eredu ematen al dute? Gaur egun euskara aplikazio bat da, eta ez sistema eragilea.

♦ **Euskara ardatzean jartzeko egiten den saiakera txikienari ere inposaketa deitzen zaio. Euskara inposatu edo de-**

rrigortu gabe, ikusten duzu Euskal Herria euskalduna egiteko aukerarik?

Zapaldua zapaltzaile bihurtzen duen jokaldi gaizto hori etengabe ikusten dugu, eta botereari dago lotua. Boterean dagoen horrek bihurtzen du bere diskurtsoa zilegi eta bestearena ez zilegi. Boterean dagoenak, edo errekonozimendu soziala, indarra edo zilegitasun soziala duen horrek lortu dezake, bera elebakarra izanik, elebiduna zapaltzailetzat aurkeztea. Lortzen du elebiduna, doblea izanik, erdi baltitz bezala tratatzea eta elebakarra zapaldua bihurtzea.

“Helburu handietan euskara beti irten da galtzen hemen; beti gelditu da bigarren plano batean”

♦ **Eta nola egin beraz?**

Zaila da zilegitasuna daukan masa horren diskurtsoa desaktibatzea eta hemen gertatzen ari dena agerian uztea. Independentzia hitz handia da, eta ez dakit nondik eta nola iritsiko garen horra, baina iruditzen zaidana da bakoitzak bere bizitzan, bere eremuan, euskaratik eta euskaraz bizitzeko egindako ahalegina independentzia gauzatzeko modua dela, bere txikian. Iruditzen zait euskararen gaia gehiegizko amabilitatez tratatzen dela plano politikoan. Nahi da euskara bultzatu, baina inor estutu gabe, eta alde batetik ulertzekoa ere bada, erdaldungo guzti hori alde behar dugulako, ezin ditugulako uxatu, etsaitu; alde behar ditugu, ekarriko baldin baditugu, baina amabilitatearen politika eterno horrekin lortzen ari garen emaitza txikia da.

Gure politikarientzat euskarak erakarri izan behar du beti, eta azkenean, hain erakarri izan behar horretan, nahikoa irudi xaloo eta beratua ematen dugu, batere ertzik eta nortasunik gabea. Eta ja-

kina, norberak bere burua eder ikusten ez duenean, nekez erakarriko du beste inor. Dena dela, ez dut uste euskararen bizirau-pena eta biziberritzea borondatearen eta norbanakoen esku bakarrik utzi behar denik. Politikak eta estrategiak behar dira, eta behartzearen “mamu” hori ere planteatu beharko da noizbait. Politika ausartagoak behar ditugu, baina horretarako indar posizio batean egon behar dugu. Eta zilegitasun hori irabazi egin behar dugu, baina garbi izanda nekez lortuko dugula krakatekorik sortu gabe, inor deseroso sentiarazi gabe.

♦ **Txantxangorria, ‘Pixka bat es mucho’, birusa... datozkit burura. Euskararen irudi ia infantilizatu ematen da instituzioetatik.**

Jendeari gustatzeko sortutako irudia da, baina etengabe besteei gustatzeko ari dena ez da batere gustagarri izaten. Hor ari gara erakarri nahian, eta geuk ere ez dugu sinisten saltzen duguna.

♦ **Iraultzei (independentismoari, feminismoari...) ere traba zaie euskara?**

Bai, independentzia, feminismoa... helburuak dira, eta euskara traba zaigu helburura bidean. Badirudi sekulako arazoak sortzen dizkigula. Helburu handietan euskara beti atera da galtzen; beti gelditu da bigarren plano batean. Komunikazioa lehenesten da, eta hainbesteko urgentziak eta hain arazo potoloak dauzkagu, hizkuntzaren gaia gero konpontzeko uzten dugula beti. Denok topatu gara noizbait halako egoera batean, eta aztertu beharko genuke zenbateraino ari garen praktikotasunez eta zenbateraino errazkeriaz. Guri beti izango zaigu zailagoa, bai, baina jakinaren gainean gaude, iritsi garen lekuraino ere horrela iritsi garelako.

♦ **Adierazkortasunaren mesedetan, hainbat erabaki hartzen ditugu: batua/euskalkia, euskañola... Nola biltzen duzu zuk adierazkortasuna?**

Zorionez, bertsolaritza, oso plaza ezberdinetara iritsi da, eta ezin duzu leku guztietan ez hizkuntza ez *tempo* bera erabili. Egokitu egin behar dugu tokian tokiko publikora. Bertsolariaren helburua beti da komunikatzea, eta horretarako, prest egon

behar du bere edertasuna eta gozamen estetiko linguistiko hori pixka bat sakrifika-tzeko. Gaur egungo bertsogintza, leku askotan eta euskararen tradizio gutxiago duten lekuetan, oso elementu bisualekin osatzen da; kontatu behar duzu publikoak ikusiko dituen gauzak.

♦ **Taxuz entrenatzen ari al gara gazteak adierazkorrak izan daitezen esparru guztietan, ala bertso eskolara ekarri behar ditugu guztiak?**

Nahiago genuke bertso eskolez gain leku gehiago baleude, baina seguru asko euskarazko mota horretako lana egiten den leku bakarra bertso eskola da. Izatez, gure helburua bertsolariak sortzeaz harago, bertso zaleak sortzea eta euskara erabiliko eta gozatuko duten gazteak sortzea da. Argumentazioan jolasean eta testuak eta pentsamenduak eder esan nahian lan egin duen jende hori dena oso entrenatua dago gero kazetaritzarako, kulturgintzarako... Bertsolaritza, beraz, ari da halako helburu linguistiko bat kimu berritzen. Hala ere, bertsolaritzak baditu bere gabeziak erregistro aldetik, argot aldetik. Hori da lantzeko daukaguna. Hori eginez lagunduko genuke erregistro ugarritasun hori elikatzen, hainbestetan esaten dena gazteek falta dutela.

Garbi dago euskara, erreminta funtzionala izanda, ez dela ezer gazteen-tzat; ez die askorako balio. Gazteek funtzio praktikoaz haragoko zerbait bilatu behar dute hizkuntzan, etorriko baldin bada. Tolestura gehiagoko hizkuntza behar dugu.

♦ **Nola tratatzen gaituzte hedabideek euskaldunok? Nola, euskara?**

Euskara hutsezkoak aparte lagata, bi talde bereiziko nituzke: beren printzipioetan erdaldungoa euskarara erakartzea duten komunikabideak (EITB eta Gara), eta komunikabide elebidunak, ez dutenak, *a priori*, printzipio ideologikorik inor euskarara ekartzeko. Lehenengoak interesatzen zaizkit. Horien inguruan esango dizut bistan dena: ez dutela praktikara eramaten printzipioetan jasotakoa. Komunikazioaren edo audientzien mesedetan, ETB2k eta

Radio Euskadik ez dute euskaratik pentsatzen eta ez dute beren programa euskal kultura ezagutarazteko egiten, eta ezta jendea euskarazko mundura edo euskarara erakartzeko ere. Oro har, edozein komunikabide espainolek egiten dutenetik oso gertuko zerbait egiten dute. Hemengo erreferenteekin batzuetan, baina horixe. Eta egin zenezake gazteleraz hemengo erdal hitzunei euskal kulturaren berri emateko, baina Euskal Herrian espainolez eta David Bisbalen berri emateko mila kate daukagu, bertakoak baino hobeak. Eta entez ari naiz, baina kazetari batzuek ere euskal kultura badenik ere ez dakite.

“Radio Euskadik ez du euskaratik pentsatzen eta ez du lan egiten jendea euskarara ekartzeko”

♦ **Eta jartzen dituzte euskaldunak erderaz hitz egiten.**

Horrek zer logika dauka? Zentzua ikusiko nioke Radio Euskadiri, baldin eta bidea emango balu erdaldunak euskaldunen berri izan dezaten. Kalleko elkarrizketetan ere, euskaldunak erderaz egiten jartzen ditu. Telebista eta irratiko erdarazko kanalen funtzioak, izatekotan, beste batek izan beharko luke. Uste dut bertsolariak garelako ETB2n edo Radio Euskadin euskaraz hitz egiten irten behar ez garen bakar-rak. Zergatik? Gure ardatza euskara delako, eta guk bertsotan euskaraz egiten jarraituko dugunez, interesgarria delako erdaldungoari guk geuk geure hitzetatik eta gazteleraz azaltzea zer egiten dugun. Aldiz, bere jarduna euskararekin hain lotua ez duen pertsona erreferente horrek, adibidez Aritz Adu-riz batek, euskaraz egin beharko luke erdarazko kanaletan.

♦ **“EITB, Euskal Herriko erdaldunei mundua euskaraz edo euskararantz erakusten ari ordez gehiegitan ari zaigu euskaldunoi, mundua delakoan, Espainia erakusten”. Zeuri entzuna da.**

Gure hizkuntza eta gure kultura mantendu nahi horretan, jende itxia garen ustea txertatzen digute askotan. Hemengo intelektualitate elebakarraren kontuak dira horiek, eta irekitasunaren izenean, Guillermo Toledo, Reyes Prado eta halakoak erakusten dizkigute. Bila ari badira, zabaldu dezatela prisma, euskal jatorrikoak ez daudelako Espainian edo Argentinan bakarrik. Espainia erakusten digute beti, eta gainera, iruditzen zaie mundu bat deskubritzen ari zaizkigula, baina guk eza-gutzen dugu erdararen mundu hori.

♦ **Eta komunikabide elebidunek zertarako erabiltzen dute euskara?**

Kupo modura. DVk gehienez ere pilota, bertsoak eta euskal literatura emango ditu euskaraz, baina nik, garbi esanda, nahiago dut DVn gazteleraz irten, aukera ematen didalako erdaldungoarengana iristeko eta jende hori euskarara ekartzeko. Sekula ez zaie okurrituko Bruce Springsteeni egindako elkarrizketa bat euskaraz ematea eta Uxue Alberdiri egindakoa, gazteleraz. Kontzezio pintoresko-folkloriko moduko bat da euskara.

♦ **Eta nola eragiten digu horrek?**

Egiten du bere lan sutila. Zuk egunero irakurtzen baduzu Diario Vasco eta pilotako albistea eta kulturako orri erdi bat bakarrik badaude euskaraz, irudituko zaizu euskal kultura txokokeria dela.

♦ **Euskaraz sortzen duzun aldetik, nola tratatzen zaituzte erdal hedabideek? Nola posizionatzen zara zu?**

Oso diferentea da elkarrizketa hori euskal kultura zer den badakien norbaitek, norbait autorizatuak, egitea edo bertsolaritza arrastorik izan ez eta bere buruari garrantzia handia ematen dion batek egitea. Hala ere, txiki sentiitzen zara normalean; paternalismo hartzen zaituzte. Ni, linguistikoki doblea izanda, erdia banantz bezala tratatzeak amorrarazten nau. Horrek eta ezezagutza horren performancea goitik beherakoa izateak.



urte, mende oso bat

uzaro bizitzeko ez ei dago lasai bizitzea baino gauza hoberik. Estresak, buruhaustek eta nekeak zahartu egiten ei dute pertsona; bizitza laburtu, baina zorionez, bizi-nahiak ere badu bere zeresana. Galdetu bestela Domingo Armerori. Bizitzak ondo zaildutako gizona da, "miseri handiak" bizitakoa, baina hala ere, 100 urte bete zituen otsailaren 13an, mende oso bat. Etxekoek inguratuta igaro zuen eguna.

Altzairuzko aita duela dio haren seme Txominek. "Duela bi urte gripearen kontrako txertoak ia eraman zuen. Zainketa Intentsiboen Unitatera sartu zuten ia, baina buelta eman zion". Daukan adinerako, "gogor" dabil eta hori makina bat ebakuntza egin izan dizkiotela. Gurpildun aulkia ere ekarri zion semeak nekatzen zenerako duela bi urte, baina amorrarazi zuen horrek aita. "'Zertarako dakarzu hori?'. Ez neri adarrrik jo!' bota zidan. Duintasuna beste ezeren gainetik". Aspaldiko urteetan elkarrekin bizi dira Donostian Domingo eta Txomin aita-semeak, baina urte luzez bizi izan zen Domingo Elgoibarren, eta "oso estimutan" dauzka elgoibartarrak.

Cozarrekoa (Ciudad Real, Espainia) da sortzez, eta 36ko gerak ekarri zuen Euskal Herrira. "Gure aita errepublikarra izan da, eta borrokarako sasoiari harrapatu zuenez militarren altxamen duak, frontera bidali zuten", azaldu du Txominek. 18-19 urte zituen, eta gorri izanda, gorriak ikusi zituen. Behin baino gehiagotan hartu zuten preso, eta Santoñako Penal del Dueso kartzelan eta Ondarretako kartzelan (Donostia) ere hilabeteak egin zituen. "Ondarretatik Zegamara bidali zuten gero lanera, behartuta, hango lan-esparrura, eta Burgosko kartzelaren batean ere izan zuten preso, baina zehatz ez dakit esaten". Aitaren gerra garaiko kontuez "informazio justua" dauka Txomin semeak, eta horretxan pena du. "Berandu hasi da gerraz berbetan. Burua galitzen hasi denean hasi da gaia ateratzen". Gaezan esnatu eta gerrako kontuez hasten zaio batzuetan semeari. "Sasoiari atera izan balu gai hau... pena da. Hemen, Euskal Herrian egin zieten gogorren frankistei eta miseria batzuk kontatu izan dizkit, baina justua". Duela asko ez zela metrailak besoan egindako zauria erakutsi zion. Domingok sekula ez zuen aurrez ezer aitatu etxean horren inguruan. Sinesgaitza ere egiten zaio Txomini aitak, "pasatako kalamitate guztiak pasata" horrenbeste urte hartu izana. "Zaindu egin da. Ez dakit horrek zerikusi handirik daukan, baina izatekotan, hori izango da sekretua".

Lana eta familia

Lanak bete du Domingoren bizitza. Lanak eta familiak. "Ez du gehiagorako denborarik ere izan. Etxeko gizona izan da, gizon zintzoa, eta oso bizitza sanoa egin du. Karta-jokoa eta futbola izan dira bere pasioak". Cozarretik Elgoibarrera iristen lehena izan zen, baina asko izan dira gerora hark zabaldutako bidea



jarraitu dutenak. "Garai batean, abuztuko oporraldirako, autobus bete jende irteten zen Elgoibartik Cozarrera".

Gazte utzi behar izan zuen bere herria Domingok, behartuta gainera, eta Euskal Herriarekin "oso esker onekoa" da, semearen berbetan. "Ez du euskaraz ikasi, baina egin du ahalegina guk hermengo kultura jaso genezan". Milagros Bergara Iturrinorekin ezkondu zen, mutrikuar "peto-petoarekin", eta Ermuaranbiden jarri ziren bizitzen. Irailaren 21eko etorbidea esaten zioten kale hari orduan, egun horretan sartu zirelako Francoren tropak Elgoibarren, eta gerora ONU ere deitu izan zaio auzoari, 60ko hamarkadan eta kanpotik Elgoibarrera etorritako jende asko han pilatu zelako. "Gure etxean ere sartu-irten handia egoten zela oroitzen dut. Ahoz ahokoak ekartzen zuen jendea, eta halakoetan ohi denez, euren sorterrikoengana jotzen zuten hasieran", esan du Txominek. Forjas Elgoibarresas lantegian egin zuen lan aitak, zerren atalean, eta sei seme-alaba izan zituzten Milagros eta biek: Fede, Jabier, Maria Amor, Milagros, Txomin eta Juan Carlos.

“Elur jausietan biktimak bizirik ateratzeko klabea denbora da”

▶ JON APODAKA ELUR BEHAKETAN ETA ELUR JAUSIEN EZAGUTZAN ADITUA

Martxoaren 18ko astebururako mendi-eski irteera antolatu du Morkaikok, eta horren harira, elur behaketari eta elur jausien ezagutzari buruzko hitzaldia antolatu du martxoaren 15erako. Jon Apodaka geologo eta elur arriskueta adituak eskainiko du saioa. Hitzaldi teoriko-praktikoa izango da, oinarrikoa, eta neguan mendian ibiltzen den jendeari zuzenduta dago. 19:00etan izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

- AINHOA ANDONEGI -



♦ Elur behaketa eta elur jausien ezagutzari buruzko hitzaldia eskainiko duzu.

Bai, neguan mendian ibiltzen den jendearentzako hitzaldia izango da. Gero eta gehiago dira neguan mendi ibilaldiak egiten dituztenak eskiekin, raketekin edo kranpoiekin, eta gehienek gutxienezko segurtasun materiala eramaten duten arren, istripu kasuetan zer egin behar den azalduko dugu hitzaldian. Azalpen teorikoez gain, elur jausi baten harrapatuta dagoen mendizale bat nola ateratzen duten erakusten duen bideo praktikoa erakutsi eta horren gainean eztabaidatuko dugu.

♦ Elur jausi edo istripu baten aurrean nola jokatu beharko genuke?

Mendiko istripu bat udan nahiko erraz konpondu daiteke, baldintza hobeak direlako eta denbora gehiago dagoelako. Baina neguan, eta bereziki elur jausien kasuan, denbora da klabea. 15 minuturen ostean biktima bizirik ateratzeko aukera asko murrizten da. Ezinbestekoa da taldekideek auto-erreskatea egitea, salbamentu taldeak iristerako beranduegi izan daitekeelako. Telefono estaldura badago, abisua eman behar da, baina mendian askotan telefono estaldurarik ez da egoten eta ezin dugu denbora galdu.

♦ Zeintzuk dira auto-erreskate bat egiteko eman beharreko pausoak?

Lehendabizi, elur jausien biktimak detektatzeko aparatua erabili behar da (arva) elurpean geratu den pertsona bilatzeko. Gero zundatu egin behar da, zirkulu edo helize forman, eta azkenik, lurperatuta dagoen pertsona aurkitu dugunean, pala erabiliko dugu, baina modu ordenatu batean. Ezin da pala hartu eta modu kaotiko batean elurra kentzen hasi, horrek prozesua moteldu egingo lukeelako.

♦ Zein motako istripuak izaten dira ohikoak?

Elur jausien arriskua apur bat mitifikatuta dago. Izaten dira, bai, baina istripu gehiago izaten dira izotzetan irrist eginda. Azkenaldian jende asko dabil neguko mendi trabesiak egiten eta prebentzio kanpaina egokirik egin ezean, datozen urteotan istripu masiboak gertatzeko arriskua dago. Askotan mendizaleak gara elur jausiak sortzen ditugunak, oso gutxi dira

berez sortzen diren elur jausiak. Adibidez joan zen astean Italian ere hori gertatu zen. Leku arriskutsua zen, eta 18 lagun pasatu ziren handik eta beraiek sortu zuten elur jausia.

♦ Zein neurri hartu behar dira neguko mendi trabesia bat egitera goazenean?

Metereologia eta elur jausi arriskua begiratu behar da lehenengo. Gaur egun informazio asko ematen da, baina askotan jendeak ez du begiratzeko, eta hori ezinbestekoa da. Horrez gain, zonaldeko mapa kartografikoak aztertzea ere garrantzitsua da, ibilaldia ondo planifikatzeko. Garrantzitsua da baita ere taldea ondo ezagutzea. Ez da berdina mendiko gidari talde bat edo talde hasiberria. Parametro horiek kontuan izan behar dira mendi trabesia antolatzeko. Eta erreskaterako oinarriko materiala eraman behar da beti, hau da, arva, zunda eta pala. Gutxienezko neurri horiek hartzeak arriskua gutxitzen laguntzen du.

Iñigo Lariz txapeldun eta Arkaitz Irureta bigarren Karolo Bandres Memorialean

Antxon Bandres eta Karolo Imirizalduren omenez egiten den mendiko eski lasterketa da Karolo Bandres Memoriale. Joan den asteburuan jokatu zen Izaba eta Belagua inguruetan. Aurten, gainera, Euskal Herriko mendi-eskiko barkarkako txapelketa ere bazen. Zapatuan jokatu zen zeharkaldian 140 eskiatzailek parte hartu zuten, eta Iñigo Martinez de Alborno donostiarra izan zen azkarrena. Euskal Herriko txapelketari dagokionez, bigarren postua eskuratu zuen Iñigo Larizek eta hirugarrena Arkaitz Iruretak. Domekan jokatu zen kronoigoeran Lariz izan zen jaun eta jabe. Minutu eta bost segundoko aldea atera zion bigarren egin zuen Javier Tirapuri, eta ia bi minutukoa hirugarren egin zuen Mikel Navarriori. Arkaitz Irureta 11. postuan sailkatu zen. Memorialeko konbinatuan, zapatuko eta domekako emaitzak batuta, Iñigo Larizek eskuratu zuen lehen postua, eta Arkaitz Iruretak, bigarrena.



Saio bereziak eskainiko dituzte Mintxetako muskulazio gelan

Ariketa fisikoaren bitartez herritarren osasuna sustatzeko asmoarekin, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak hiru saio berezi eskainiko ditu Mintxetako muskulazio gelan. Hala, martxoaren 20an luzapenen tailer bat egingo dute. Muskulazio gelako aparatuek nola erabili erakutsiko dute martxoaren 22an, eta, bukatzeko, martxoaren 23an, abdominalei buruzko tailerra eskainiko dute. Hiru saioak 10:10etik 11:00etara izango dira Mintxetan, eta doan izango dira. Interesa dutenek Olaizagan edo Mintxetan eman behar dute izena martxoaren 15a baino lehenago.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 2 – Hondarribia 1 (Oho. erreg.)
 Elgoibar 1 – Gure Txokoa 2 (1. erreg.)
 Elgoibar 2 – Zumaiako 1 (Oho. jub.)
 Aretxabaleta 2 – Elgoibar 2 (Jub. 1. maila.)
 Ordizia 1 – Elgoibar 2 (Oho. kad.)
 Hondarribia A 3 – Elgoibar 3 (Inf. 1. maila.)
 Real Union 4 – Elgoibar 0 (Infantil Txiki)
 Elgoibar 19 – Eibartarrak B 2 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 6 – Aurrera Vitoria 3 (Nazional B)

SASKIBALOAIA

Viento Sur Elg. 68 – Soraluze Bergara K.E. 53

ESKUBALOAIA

Alcorta F.G. 27 – Bidasoa 28 (Senior giz.)
 Lauko 30 – Kukullaga 22 (Senior emak.)
 Salento 28 – Ormaiztegi 28 (Sen. giz.)
 Egia 25 – Beristain 28 (Jub. mut.)
 Bera Bera 23 – Tecnifuelle 22 (Jub. neska.)
 Urkunde 27 – Pulpo 27 (Kad. mut.)
 Aloña 28 – C. Astigarraga 27 (Kad. neska.)
 Cometel 25 – Tolosa 27 (Kad. neska.)
 Brakys Pulpo 20 – Dario 16 (Kad. neska.)
 Bera Bera 33 – Modeltek 26 (Inf. neska.)
 Kalari Pulpo 23 – Pneumax 7 (Inf. neska.)
 Bacalaos Alkorta 19 – Bidasoa 20 (Inf. neska.)
 Amenabar B 22 – Murgil 21 (Inf. mut.)
 H. Txarriduna 34 – Arrasate 16 (Inf. mut.)

Agenda

ESKUBALOAIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 11

10:00 Modeltek – Egia (Inf. neska.)
 11:15 Murgil – Usurbil (Inf. mut.)
 12:30 Bankoa – Caribe (Kad. mut.)
 17:00 Dariobus – Usurbil (Kad. neska.)
 18:30 Astigarraga – Aiala (Kad. neska.)

Domeka, 12

10:00 Pneumax – Urnieta (Inf. neska.)
 11:30 Deca – Leizaran (Jub. mut.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 11

12:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Oho. kad.)
 16:00 Elgoibar – Segura (1. erreg.)
 18:00 Elgoibar – Urola (Jub. 1. maila)
 Domeka, 12
 10:00 Elgoibar – Aizkorri (Inf. 1. maila)
 12:00 Elgoibar – Tolosa (Infantil Txiki)

Imanol Garaizabal Guarani espedizioa raidean parte hartzen ari da, Paraguain

Abentura raiden Munduko Zirkuituko bigarren proba hasi zen astelehenean Paraguain, Guarani espedizioa. Imanol Garaizabal elgoibartarra Euskat Raid Team-Raidaventura.org taldearekin ari da parte hartzen, Aitor Otamendi, David Tarres eta Monica Aguilarekin batera. Parte hartzaileek 500 kilometroko ibilbideari aurre egin beharko diote, antixitxika, mendi bizikletaz edo kayaketan (150 kilometro). Antolatzaileen aurreikuspenen arabera 80-90 ordu inguru beharko dituzte lehen sailkatuek helmugara ailegatzeko.



LANA.....
Eskaerak

Nagusiak zainduko nituzke. Interna moduan edo orduka lan egingo nuke.

☎ 632 983 250

Nagusiak zainduko nituzke. Interna moduan lan egiteko prest nago.

☎ 612 266 877

Nagusiak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka edo interna moduan. Esperientzia daukat.

☎ 602 490 595

Elkarte gastronomikoak eta etxeetako portalak garbitzeko prest nago.

☎ 617 571 210

Etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka.

☎ 632 737 903

luzila da nire izena eta adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia daukat.

☎ 658 747 099

Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientziaduna.

☎ 635 005 536

Adinekoak zaindu eta etxeko garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka zein interna moduan.

☎ 605 402 030

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 632 436 462

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Goizez.

☎ 632 784 360

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago.

☎ 632 947 212

Asteburuetan adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.

☎ 626 435 491 (Ildoia)

Emakume arduratsua, erreferentzia onak eta esperientzia handia. Adinekoak zaintzeko eskaintzen da. Ordu-tegi malgua.

☎ 631 907 807

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia.

☎ 681 065 683

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia.

☎ 680 808 125

Asteburuetan lan egiteko prest nago. Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut.

☎ 648 039 187

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna moduan ere. Esperientzia handia eta erreferentziak ditut.

☎ 631 613 245

Adinekoak zainduko nituzke. Geriatria laguntzailea naiz. Ordu-tegi malgua.

☎ 646 931 162

Umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 642 424 173

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Baita interna moduan ere. Pertsona nagusiak ere zaintzen ditut.

☎ 631 498 697

Garbiketa lanak egiteko prest nago, etxeetan eta portaletan. Euskaraz egiten dut.

☎ 649 782 967

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan asteburuetan.

☎ 651 156 456

Eskaintza

Jatetxerako sukaldari laguntzailea eta zerbitzaria behar dira.

☎ 620 810 120

Elgoibarko taberna baterako enkargatua behar da. Esperientziarekin. Bidali curriculum elgoibartaberna@outlook.es helbidera.

Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut.

☎ 656 780 748

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokatzen dut Leku Ederren, 3. sotanoan. Ate automatikoa dauka.

☎ 943 740 459 / 639 882 219

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Apartamentua alokatzen dut San Franzisko kalean. Berrituta dago eta igogailua dauka.

☎ 616 708 247

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 602 490 595

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 688 723 121

BESTELAKOAK.....

Joan zen domekan Urtiatik jaisten ari zen txirriindulari batek Polar markako GPSa galdu zuen. Aurkitu duenak eraman dezala mesedez Udaltzaingora.

☎ 665 733 341

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Finantza Administrazioen Erakunde Komunitarioa



**ROSA M^a
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Jakin nahiko nuke komunitateko presidentek erabaki dezakeen, bere kabuz, igogailuen mantenurako enpresari kontratua ez berritzea.

Enpresa horri kontratua luzatu edo ez erabakitzea jabeakideen batzarrari dagokio. Gai hori batzarrean aztertzeke asmoa baldin badago, presidentek aurrez jakinarazi beharko dio enpresari. Kontratutako enpresari kontratua ez luzatzea zilegia da, eta batzarrak hartu dezake erabaki hori, baina kontratua etetea erabakiz gero, batzarrak jakin behar du kalte-ordain bat ordaindu beharra izan dezakeela, eta era berean, presidentek jakin behar du berari dagokiola kontratatutako enpresari horren berri ematea.


AHOLKUA: Kontratuak eteteko aukera hau, indarrean dauden kontratuetan aplikatzekoa da, debekatuta dagoelako gehiegizko iraupena duten epeak ezartzea edo eta kontsumitzaileak kontratua eteteko duen eskubideari mugak jartzea. Bukatzeko, esan beharra dago mantenu-enpresekin lotutako kontratuetan ezin dela eman ez diren zerbitzuegaitiko klausularik ezarri, eta ezta kalte-ordainik ere eragin ez diren kalteengatik.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Jone**, etxeko printzesa, martxoaren 6an 4 urte bete zenituelako. Muxu asko guztien partez, muxu potolo bat.




Zorionak, **Mikel**, martxoaren 7an 8 urte bete zenituelako. Muxu asko familiakoekin partez.



Zorionak, **Nahia**, datorren domekan 7 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eta muxu handi bat familiakoekin partez.



Zorionak, **Unai**, martxoaren 13an 10 urte egingo dituzulako. Behar bezala ospatu! Bereziki, Elsaren partez.



Zorionak, **terremoto**, zure 8. urte betetzean. Maite zaitugu.



Zorionak, **Maite**, martxoaren 8an 6 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoekin, eta bereziki, Beñaten partez.



Zorionak, **txiki-txo!** Etxeko printzesak jada 2 urte! Muxu asko guztien partez.



Zorionak, **Martin**, bihar 7 urte beteko dituzulako. Patxo potolo bat etxekoekin, eta bereziki, Inesen partez.



Zorionak, **Iuren!** Gaur 7 urte! Ondo-ondo pasa eguna! Muxu potolo bat etxeko guztien partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



- Asturias, Kantabria, Gaztela eta Leon eta Hego Euskal Herrirako lan egingo duen komertzial tekniko behar dugu.
- Baldintza ekonomikoak, erakutsitako balioaren arabera.
- Enpresako autoa.
- Baloratuko da euskara eta ingeles maila handia izatea.

Bidali curriculumak quintana@murrplastik.es helbidera.



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

☎ 943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

Uzuri

ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

VARILUX 40

Mugarik gabeko ikusmena momentuan

IRAULTZA BERRIA
LENTE PROGRESIBOETAN

10 BARIXAKUA

20:30 Antzerkia: *Sarean kateatuta, Nomofobikak*. Herriko Antzokian.

21:30 'Las hermanas de Magdalena' filma. Mendaroko Gaztelekuak eta Ludotekak antolatuta, 'Berdintasuna Eraikitzen' egitasmoaren barruan. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

11 ZAPATUA

10:00 Emakumeentzako autodefentsa tailerra. 14 urtetik gorakoentzat. Olai-zaga kiroldegian.

11:00 Informazio saioa: Ingeniaritza Dualeko Unibertsitate-eskolaren informazio saioa. IMHn.

12:30 Kontzertua: Sustrai akordeoi taldearen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan. Maite Janeirok zuzenduko du kontzertua.

18:00 GeoElgoibar ibilbidea: Geologia Elgoibarko kaleetan. Inma Mugertza biologoak azalera ekarriko ditu herriko horretan ezkututzen diren bitxikeriak. Izena emateko: infohydrolur@gmail.com edo 943 901 654. Plaza mugatuak (25). Iraupena: 2,5 ordu. Udaletxeko arkupeetan batuko dira.

18:30 'Cómo entrenar a tu dragón' filma. Mendaroko Gaztelekuak eta Ludotekak antolatuta, 'Berdintasuna Eraikitzen' egitasmoaren barruan. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

12 DOMEKA

17:00 Jolas kooperatiboak. Mendaroko Gaztelekuak eta Ludotekak antolatuta, 'Berdintasuna Eraikitzen' egitasmoaren barruan. Mendaroko frontoian.

13 ASTELEHENA

18:30 Emakumeentzako jabeakuntza tailerra: *Zer da feminista izatea?*. Udal Ja-betza Eskolak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

14 MARTITZENA

17:30 Erakusketa: Amagandiko edoskitzea. Maitasunez Hazi taldeak antolatuta, edoskitzeari buruzko argazki erakusketa. Kultur Etxeko sotoan egongo da ikusgai hirlaren 18ra arte. Asteazkenean zehar 17:30etik 19:30era, eta zapatuan, 12:00etatik 14:00etara.

15 EGUAZTENA

9:00 Aurkezpena: Enpresentzat Ingeniarik prestatzeko Barne Promozioetarako Sistema Malgua aurkeztuko dute IMHn.

19:00 Hitzaldia: *Elurraren behaketa eta elur-jausien ezagupena*. Morkaikok antolatuta, Jon Apodaka elur arriskuen kontuetan adituak eskainiko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19:00 Dantza jaialdia: Inazio Bereziartua musika eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

16 EGUENA

19:00 Dantza jaialdia: Inazio Bereziartua musika eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

17 BARIXAKUA

20:30 Balleta, aurrez grabatua: *Romeo y Julieta*. Herriko Antzokian. Sarrerak aurrez erosteko Kutxabank bidez, edo zapa-tuetan, Herriko Antzokiko leihatilan, 19:15etik 21:45era.

**Herrialde honetan amets egiten da, berritu egiten da. Gu hemengoak gara.
Bertoko proiektuak babesten ditugu.**

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G U A R D I A K

09:00 - 22:00

- 10 Barixakua GARITAONANDIA
- 11 Zapatua BARRENETXEA
- 12 Domeka BARRENETXEA
- 13 Astelehena FERNANDEZ*
- 14 Martitzena YUDEGO
- 15 Eguaztena ORUESAGASTI*
- 16 Eguena BARRENETXEA
- 17 Barixakua IBAÑEZ*

20:00 - 22:00

* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik:
BARRENETXEA (Elgoibar)
Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar)
San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533

- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Zinea (Herriko Antzokian)

'La La Land la ciudad de las
estrellas'

11 zapatua: 19:00 / 22:15 VOS
12 domeka: 19:00
13 astelehena: 21:30

'Blinky Bill'

12 domeka: 16:30

'Historia de una pasión'
(Ongarri zinekluba)

16 eguena: 21:30

Otsailean hildakoak

- . Manuela Larrañaga Loiola
90 urte, otsailak 2
- . María Cristina Fernandez
Martinez
88 urte, otsailak 6
- . Patxi Larrañaga Zubizarreta
83 urte, otsailak 9
- . Carmen Hernaez Romero
92 urte, otsailak 14
- . Nieves Iza Sagarzazu
86 urte, otsailak 15
- . Jesusa Barinagarrementeria
Gandiaga
89 urte, otsailak 16
- . Antonio Herrero Estarta
84 urte, otsailak 23
- . Joseba Zinkunegi
Garmendia
50 urte, otsailak 26
- . Iker Jausoro Murgiondo
47 urte, otsailak 26
- . Txomin Ondarre Amuategi
87 urte, otsailak 27



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Iñigo Lamelas

Jose Luis Azpillaga



Iñigoren argazkiari begiratuta, ez dakit ziur zer ikusten dudana: ilunabarra ala egunsentia? Goizaldea ematen du, argi indartsu horregatik. Baina ezin jakin ziur; izan ere, zeinen antzekoak diren batzuetan iluntzea eta argi-urrtzea.

Bitxia da. Gainera, ez dut paraje hori ezagutzen; ez dakit zein diren zeruertzeko mendi horiek.

Duela urte batzuk lagun argazkilari batek honen antzeko argazki bat bidali zidan eta jolas bat proposatu: ezetz asmatu zer den, ilunabarra ala goiztiria? Berez ez zen hain zaila, orduko hartan argazkia nondik atera zuen ere esan zidan eta. Jakin egin behar nuen zerumuga hartan nondik ateratzen zen eguzkia eta nondik sartzen. Ez nuen asmatu.

Oraingo zalantza argitzeko, Iñigori galdetzea ere otu zait,

baina gero pentsatu dut nahiago dudala dudatan jarraitu. Gustatzen zait anbiguotasun hori. Ideia iradokitzailea da pentsatzea zein antzekoak diren hasiera eta amaiera; gauza baten bukaeratzat jotzen dena, agian, beste zerbaiten hasiera ere izan daitekeela pentsatzea.

Aste honetan bete ditut urteak. "Askotxo", zenbaiten ustez. Hurbiltzen ari naiz bizitzaren azken edo azkenaurreko garaira. Erretiroa hartzea ere ez dut oso urruti. Gero eta sarrigotan izaten dut hizpide jubilazioa nire inguruan. Eta alde handia dago nola begiratzen zaion garai horri: ilunabar ala egunsenti?

Xerezadek gauean hasitako ipuinaren kontaketa eten egiten omen zuen goizaldean, ipuina bukatu gabe utzita. Hurrengo gauean istorioa bukatu eta hari lotutako beste baten kontaketa ekiten omen zion. Xerezadek bezala bizitzak ere kontakizun eta bizipen ugari eta aberatsak opa diezazkigula denoi!

"Ideia iradokitzailea da pentsatzea zein antzekoak diren hasiera eta amaiera"



Juan Ansola Aguinaga

"Pacorro"


2017ko martxoaren 7an hil zen, 73 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Jose Maria Altuna Leyaristi

2016ko martxoaren 5ean hil zen, 84 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 11, 19:00etan
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.




IV. URTEURRENA

Iñaki Argarate Iriondo

2013ko martxoaren 7an hil zen, 50 urte zituela.

**Ez zaitugu gehiago ikusiko gure artean,
baina betirako egongo zara gure oroimenean**

Zure lagunak




I. URTEURRENA

Fernando Alkorta Aulestiarte

2016ko martxoaren 9an hil zen, 92 urte zituela.

*Urtebete zu gabe. Ezin sinistu, ezin ahaztu.
Zu bezelakorik ez dago munduan. Eskerrik asko zure maitxasunagaitxik.
Izugarri maitxe zaitxugu.*

Zure familia




Jesus Maria Etura Echeverria

2017ko martxoaren 1ean hil zen, 89 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen
goxoa ezerk ez du lausotuko.**

Sendia





Emaiguzu **BARREN** komunikazio proiektuari buruz daukazun iritzia

BARREN Komunikazio proiektua herritarrekin eta herriarentzat eginiko proiektua da. Hori dela-eta, herritarrek proiektuari buruz duten iritzia ezagutu nahi dugu, komunikazio proiektua hobetu ahal izateko. BARREN komunikazio proiektuak bi euskarri ditu: BARREN astekaria paperean eta barren.eus webgunea Interneten. Bi euskarri horiei buruzko galdeketa prestatu dugu, eta hori betetzea eskertuko genizueke, gure bi euskarriak irakurleen beharretara egokitu ahal izateko.

- ♦ **BARREN** bakoitzarekin inkesta bat banatu dugu gaur.
- ♦ Sinplea eta erraza da inkesta betetzea.
- ♦ Inkesta online betetzeko aukera ere baduzu, www.barren.eus atarian.

Inkesta entregatzeko azken eguna: **Martxoak 31**

Non entregatu? BARREN astekaria (Nafarroa plaza 2, behea) edo Elgoibarko Izarra (Ubitarte 4 behea)

BARREN komunikazioa - Asebetetze inkesta 2017

Honako galdelegian bitartez gure irakurleak osabetzea nahi ezagutu nahi dugu, gure proiektuak (BARREN astekaria eta barren.eus webgunea) hobetu eta indarretan indartzeko. Galdelegia oso sinplea da, baina zure adin-tortxo eta iruzur adierazteko oportunitate garrantzitsu bat da.

Adin-tortxo: 10-20 21-30 31-40 41+

Sexua: Erabur Emakume Erabur eta Emakumeak batera

1. Zein da inkesta adierazteko (betetze) duzun beharretatik? **Beharretatik 1etik 10ra, 1 eta beharretatik 10 bitartean, 10 bitartean, 10 bitartean.**

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
- Gure proiektuak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Inkesta sinplea da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Inkesta online betetzeko aukera dago	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Inkesta erabilgarria da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Inkesta erabilgarria da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Inkesta erabilgarria da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Inkesta erabilgarria da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Inkesta erabilgarria da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Inkesta erabilgarria da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Inkesta erabilgarria da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
- Inkesta erabilgarria da	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

2. **Beharretatik 1etik 10ra, 1 eta beharretatik 10 bitartean, 10 bitartean, 10 bitartean.**

3. **Beharretatik 1etik 10ra, 1 eta beharretatik 10 bitartean, 10 bitartean, 10 bitartean.**

4. **Beharretatik 1etik 10ra, 1 eta beharretatik 10 bitartean, 10 bitartean, 10 bitartean.**

5. **Beharretatik 1etik 10ra, 1 eta beharretatik 10 bitartean, 10 bitartean, 10 bitartean.**

6. **Beharretatik 1etik 10ra, 1 eta beharretatik 10 bitartean, 10 bitartean, 10 bitartean.**

7. **Beharretatik 1etik 10ra, 1 eta beharretatik 10 bitartean, 10 bitartean, 10 bitartean.**

8. **Beharretatik 1etik 10ra, 1 eta beharretatik 10 bitartean, 10 bitartean, 10 bitartean.**

9. **Beharretatik 1etik 10ra, 1 eta beharretatik 10 bitartean, 10 bitartean, 10 bitartean.**

10. **Beharretatik 1etik 10ra, 1 eta beharretatik 10 bitartean, 10 bitartean, 10 bitartean.**

Zure iritzia guretzat garrantzitsua delako. Mila esker BARRENI zure denbora eskaintzeagatik.

